



**ORIOKOUNDALA**

**AKTA**

# Udalbatzarraren ezohiko bilkura

**EGUNA:** 2012ko urriaren 30a, asteartea

**TOKIA:** Udalbatzarraren aretoa, udaletxean

**DEIALDIA:** Lehena

**HASTEKO ORDUA:** 20:00    **BUKATZEKO ORDUA:** 20:20

**BERTARATUAK:**

**Alkatea**

Beñat Solaberrieta Albizu

**Zinegotziak**

Jon Redondo Lertxundi, Noemi Ostolaza Arkauz, Lourdes Salsamendi Goñi, Eugenio Cotado Iturain, Elena Etxeberria Sedano, Jon Agirresarobe Lopetegi, Bixente Lasa Karrikaburu, Amaia Dorronsoro Portularrume, Ekiñe Saizar Larrañaga, Miriam Uranga Egurza eta Jose Angel Iparragirre Alberdi.

**Idazkari-kontu-hartzailea**

Jon Carrera Jauregi

**BERTARATU EZ DIRENAK:**

Angel del Hoyo Bravo zinegotziak (EAJ) adierazi du ezin zuela etorri, lan kontuengatik, eta beraz, ez du bilkuran parte hartu.



## Gai-zerrenda

- 1.- Irakurri eta onartzea, egoki bada, udalbatzarraren honako bilkuretako akten zirriborroak: 2012ko uztailaren 10eko ezohiko bilkurakoa eta irailaren 27ko ohiko bilkurakoa.
- 2.- Onartzea, egoki bada, ordenantza fiskalen eta beren eranskinen aldaketa, eragina 2013ko urtarrilaren 1etik aurrera izango duena.
- 3.- Onartzea, egoki bada, auto-taxi zerbitzuaren tarifa urbanoak aldatzea 2013rako, Urola-Kosta eskualdean.
- 4.- Lehen onarpena ematea, egoki bada, 7/2012 kreditua aldatzeko espedienteari. Espedientea kreditua transferitzeko modalitatean egina dago.
- 5.- Onartzea, egoki bada, EAJ udal talde politikoak aurkeztutako Adierazpen Instituzionala, 2012ko azaroaren 25ean "Emakumeenganako Indarkeriaren Kontrako Nazioarteko Eguna" dela-eta.
- 6.- Orioko Udalak bat egitea, egoki bada, "GRUPO DE ACCIÓN COSTERA" izeneko elkartearekin.
- 7.- Eskariak eta galderak.

## Esan-eginak

**1.- IRAKURRI ETA ONARTZEA, EGOKI BADA, UDALBATZARRAREN HONAKO BILKURETAKO AKTEN ZIRRIBORROAK: 2012KO UZTAILAREN 10EKO EZOHICO BILKURAKOA ETA IRAILAREN 27KO OHIKO BILKURAKOA.**

Udalbatzarrak gaiaren berri jakiten du.

Udalbatzarra jakinaren gainean geratzen da eta, gaia eztabaidatu ondoren, **HONAKO HAU ERABAKITZEN DU, AHO BATEZ** [guztira **HAMABI BAIEZKO BOTO**; gehiengo absolutua, beraz]:

**ONARTZEA** udalbatzarraren honako bilkuretako aktak: 2012ko uztailaren 10eko ezohiko bilkurakoa eta irailaren 27ko ohiko bilkurakoa.



## **2.- ONARTZEA, EGOKI BADA, ORDENANTZA FISKALEN ETA BEREN ERANSKINEN ALDAKETA, ERAGINA 2013KO URTARRILAREN 1ETIK AURRERA IZANGO DUENA.**

Udalbatzarrak gaiaren berri jakiten du. Gaia 2012ko urriaren 26ko Hirigintza, Ingurumena, Ogasuna eta Pertsonala batzorde informatzailean diktaminatu da, segidan zehazten den eran:

**1.-** Izaera Urbanoko eta landa-izaerako Ondasun Higiezin Zergari aplikagarri zaizkion karga-tasei dagokienez, proposatzen da urte arteko Kontsumo Prezioen Indizea (aurrerantzean, KPI) igotzea —%3,5—, eta eustea, dauden horretan, familia ugarietzako hobariei.

Gipuzkoako Lurralde Historikoko Batzar Nagusien uztailaren 4ko 4/2012 Foru Arauak hainbat aldaketa egin zituen tokiko zergatan; horietako bat izan zen Ondasun Higiezin Zergari buruzko uztailaren 5eko 12/1989 Foru Arauaren 14. artikulua 5. atalari dagokiona. Aldaketa horiek ikusita, honako hau proposatzen da: etxebizitza erabilera duten ondasun higiezinetan —subjektu pasiboaren ohiko etxebizitza ez denean edota hirugarrenen ohiko etxebizitza ez denean (errentan emana dagoelako edo erabilera-lagapenean dagoelako)—, Udalak %100eko errekarua aplikatzea zergaren kuota likidoan. Errekargu hori zergaren subjektu pasiboei exijituko zaie eta zergarekin batera sortuko da; likidatu ere, urtero likidatuko da, kuotarekin batera.

%100eko errekaru hori aplikatzeko, bizitokirako erabileradun higiezin honako hau hartuko da: katastroan etxebizitza erabileradun gisa jasota dagoen lokala. Etxebizitzaren eranskinak ere sartuko dira, erregistroan finka bakar gisa ageri badira. Eragin horietarako, bizitokirako erabilera daukan higiezin bat ohiko etxebizitza dela kontsideratuko da, baldin eta higiezin hori, zerga sortzen den datan, udal erroldan okupatzaileen ohiko etxebizitza gisa jasota badago.

Era berean, kontsideratuko da bizitokirako erabilera daukan ondasun higiezin bat ez dela subjektu pasiboaren ohiko etxebizitza, baldin eta, zerga sortzeko datan, udal erroldan ez badago inor bertan erroldatuta.

**2.-** Orioko jarduera ekonomikoen gaineko zergaren exakziorako hainbat ahalmen arautzen dituen ordenantza fiskalean ezarritako gutxieneko kuoten gehikuntzarako koefiziente bakarra ez igotzea proposatzen da.

**3.-** Izaera urbanoko lurren balioaren gehikuntzaren gaineko zergaren tasa eta urteko portzentajeak ez igotzea proposatzen da.

**4.-** Trakzio mekanikodun ibilgailuen gaineko zergari aplikagarri zaizkion tarifa guztiei urte arteko KPIa (%3,5) gehitzea proposatzen da, indarrean mantenduz zerga hori arautzen duen ordenantza fiskalean ezarritako hoberi guztiak.



5.- Eraikuntza, instalazio eta obren gaineko zergari aplikagarri zaizkion zerga-tasak ez igotzea proposatzen da.

Gutxieneko tarifei, bai Orioko Hirigune Historikoan eta bai herriko beste tokietan, urte arteko KPIa (%3,5) gehituko zaie.

Indarrean segituko dute zerga hori arautzen duen ordenantza fiskalean ezarritako hobari guztiek.

6.- Ondoren zerrendatzen diren tasei aplikatzen zaizkien tarifak ez dira igoko:

- Udal erabilera publikoko lurretan zangak eta hobiak irekitzea.
- Udal erabilera publikoko lurrak okupatzea. Ezarritako hobariak indarrean segituko dute.
- Ibilgailuak sartzea espaloian barrena eta bide publikoa erreserbatzea modu eskusiboan aparkatzeko, ibilgailuak geratzeko eta edozein motatako salgaien zama-lanerako.
- Edozein udal bide publikoren hegala-irteera okupatzea.
- Udal erabilera publikoko lurrak okupatzea mahai, aulki, tribuna, oholtza eta antzeko elementuekin, dirua irabazteko asmoz. Horretarako ezarrita dauden hobariak indarrean segituko dute eta, bestalde, proposatzen da %50eko hobaria aplikatzea lurren okupazioa bakarrik asteburuetan egiten duten ostalaritzako estableziemenduei.
- Bide publikoan kioskoak instalatzea.
- Udal erabilera publikoko lurretan postuak, barrakak, salmenta-guneak, ikuskizunak, atrakzioak eta horrelakoak instalatzea (kaleko industriak, industria ibiltariak eta zinema-filmaketak barne). Horretarako ezarrita dauden hobariak indarrean segituko dute.
- Bide publikoko lurzoru, lurrazpia eta hegalkinen erabilpen pribatiboa eta aprobetxamendu berezia.
- Kutxazain automatikoak eta bide publikotik irismena duten salmenta-makinen instalamendu eta funtzionamendua.
- Autotaxien eta errentako gaineko ibilgailuen lizentziak edo baimenak ematea.



- Udal administrazioak edo udal agintariak norbaiten eskariz ematen dituzten agiriak, udal bulegoetan egindako era guztietako fotokopia eta konpultsak izan ezik; azken horien tarifak hauek izango dira:
  - DINA4 tamaina: 0,10 euro/orriko.
  - DINA3 tamaina: 0,15 euro/orriko.
  - Konpultsak: 0,15 euro/orriko.
- Lurzoruari eta antolamendu urbanoari buruzko legeek exijitutako lizentzia urbanistikoak ematea.
- Establezimenduak irekitzeko lizentziak ematea.
- Udal kanposantuan zerbitzuak eta kontzesioak ematea.
- Estoldako zerbitzua ematea.
- Ibilgailuak geraraztea eta bide publikotik erretiratzea.
- Orioko Eguneko Zentroan ile-apaindegi zerbitzuak ematea.
- Udal pilotalekuaren erabilera eta Orioko Antilla hondartzako kabinen erabilera.
- Kultur etxeko aretoen erabilera.
- Udalbatzarraren aretoaren erabilera.
- Azurza Etxeko tutoretzapeko apartamentuen erabilera. Erabiltzaileei aplikatzen zaizkien hobariak indarrean segituko dute; horretarako, diru-sarrera osoak kontuan hartuko dira (lan errentak eta kapitala) eta ez bakarrik pentsioaren kopurua.
- Udal futbol/softbol zelaia erabiltzea. Egoitza soziala Orion duten klub eta kirol elkarteak salbuetsita egongo dira.
- Iturriaga jauregian kokatutako Euskal Herriko Donejakue Bidearen interpretazio-zentroaren erabilera. Tarifak behetik biribilduko dira eta horrela geratuko dira:
  - 10 urte arteko haurren sarrerak: 1,50 euro
  - Erretirodun eta pentsiodunen sarrerak: 1,50 euro
  - Helduen sarrerak: 2,00 euro



- Taldeentzako sarrerak (gutxienez 15 lagun): 1,00 euro
- Udaletxeko teilatupeko gelaren erabilera.
- Teniseko, paddle-eko eta squasheko udal pisten erabilera.
- Txu-txu trenaren erabilera eta bertan iragarkiak jartzea. Proposatzen da tarifa berezi batzuk ezartzea Udalaren txu-txu trena errentan uzteko:
  - 200 euro/orduko, herrian.
  - 1000 euro/eguneko, herritik kanpo.

**7.-** Trakzio mekanikoko ibilgailuak udalerriko kaleetan erabakitako zonen barruan, eta muga jakin batzuekin, aparkatzeko tarifak honela geratuko dira:

- Hondartzako aparkalekua (turismoak): 1,20 €/orduko edo zatiko.
- Udal eranskailuaren prezioa: 40 euro/denboraldiko

**8.-** Zaborrak eta hondakin solido urbanoak etxez etxe biltzeko zerbitzuaren tasaren tarifa urte arteko KPIa igoko da (%3,5), honako salbuespenarekin: elkarte gastronomikoei aplikatuko zaien tarifa %10 gehituko da.

Nolanahi ere, hondakin organikoak biltzeko bosgarren edukiontzia erabiltzen duten elkarte gastronomikoei urte arteko KPIa baizik ez zaie igoko tarifa (%3,5).

Ezarrita dauden hobariak bere horretan segituko dute.

**9.-** Proposatzen da Orioko Udal Musika Eskolan egindako ikasketen tarifak urte arteko KPIa + 4 puntu igotzea (%7,5).

**10.-** Proposatzen da udal kanpina erabiltzeko tarifak urte arteko KPIa igotzea (%3,5) —BEZ aparte—, honako salbuespenarekin: egonaldi luzeetarako tarifak urte arteko KPIa + 6 puntu igoko dira (%9,5) —BEZ aparte—; tarifa horri unean uneko BEZa aplikatuko zaio eta, beraz, aurtengoarekin alderatuta, datorren urtekoa bi puntu gehiago izango da.

Bestalde, proposatzen da tarifa berezi batzuk sortzea, bungalowen erabileragatik, tamainaren eta denboraldiaren arabera (goi-denboraldia uztaila eta abuztua izango da; tarteko denboraldia, ekainaren 15etik 30era, irailaren 1etik 15era, Aste Santua, zubiak, jaiegunak eta San Nikolas jaiak; behe-denboraldia, gainerako guztiak). Bungalowak lau motatakoak izango dira: 2-4 lagunekoak, 4-6 lagunekoak, 6 lagunekoak eta behar berezietarakoak.



Bungalowen eguneko tarifak (BEZ barne) hauek izango dira:

Bungalow mota	Goi-denboraldia	Tarteko denboraldia	Behe-denboraldia
2-4 lagun	80 €/eguneko.	70 €/eguneko.	60 €/eguneko.
4-6 lagun	100 €/eguneko.	85 €/eguneko.	70 €/eguneko.
6 lagun	120 €/eguneko.	105 €/eguneko.	90 €/eguneko.
Behar berezietarakoak	100 €/eguneko.	85 €/eguneko.	70 €/eguneko.

100 euroko fidantza ezarriko da eta promozio bereziak egingo dira bungalowen erabilera sustatzeko Berezitasunak udal kanpinaren zuzendariak ezarriko ditu, aldez aurretik Udaleko Turismo batzorde informatzailean diktaminatuta.

**11.-** Proposatzen da urte arteko KPIa + 4 puntu igotzea (%7,5) udal kiroldegia erabiltzeko tarifak.

**12.-** Proposatzen da udal kiroldegiaren azpiko garaje-plazak errentan hartzeko tarifak BEZ gabe ezartzea, aldez aurretik 2012an indarrean dagoen zerga-oinarriari urte arteko KPIa gehituz (%3,5).

**13.-** Proposatzen da Udalaren txosna erabiltzeko tasa berezi bat ezartzea.

Alokairuari aplikatu beharreko tarifak hauek dira:

- Muntatu eta desmuntatzeagatik: 900 euro.

- Txosna erabiltzeagatik: 150 euro/eguneko

Garraio-gastuak txosna errentan hartzen duenaren kontura izango dira.

**14.-** Proposatzen da Udalaren oholtza erabiltzeko tasa berezi bat ezartzea.

Alokairuari aplikatu beharreko tarifak hauek dira:

- Muntatu eta desmuntatzeagatik: 1.700 euro.

- Oholtza erabiltzeagatik: 240 euro/eguneko



Garraio-gastuak oholtza errentan hartzen duenaren kontura izango dira.

**15.-** Proposatzen da, azkenik, tarifa berezi batzuk sortzea jardueragatiko lizentziak emateko eta jardueraren eta instalazioen funtzionamenduari buruzko egiaztapenak eta ikuskapenak egiteko tasaren barruan, erreferentzia bezala hartuta Zarauzko Udalak 2012rako onartu zituen tarifak.

Udalbatzarra jakinaren ganean geratzen da eta, Hirigintza, Ingurumena, Ogasuna eta Pertsonaleko batzorde informatzaileak 2012ko urriaren 26an emandako diktamena ikusita, gaia eztabaidatu ondoren, **HONAKO HAU ERABAKITZEN DU, BOZKETA BIDEZ** [Aldeko botoak: Solaberrieta (Bildu), Agirresarobe (Bildu), Lasa (Bildu), Dorronsorro (Bildu), Saizar (Bildu), Uranga (Orain) eta Iparragirre (Orain), guztira **ZAZPI ALDEKO BOTO**; kontrako botoak: Redondo (EAJ), Ostolaza (EAJ), Salsamendi (EAJ), Cotado (EAJ) eta Etxeberria (EAJ), guztira **BOST KONTRAKO BOTO**; gehiengo absolutua, beraz]:

**1.- LEHEN ONARPENA EMATEA** Ordenantza Fiskalen Aldaketari eta bere eranskiniei, 2013ko urtarrilaren 1etik aurrerako eraginarekin, erabaki honen azalpenean jasota dauden terminotan.

**2.- JENDAURREAN JARTZEA** erabaki hau eta hasitako espedientea, Gipuzkoako Toki Ogasunak arautzen dituen uztailaren 5eko 11/1989 Foru Aginduaren 16.1 artikuluan ezarritakoa betez, Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean eta udaletxeko iragarki taulan iragarkiak argitaratuz, honako arauen arabera:

**a) Ikusgai dauden tokia:** Udaletxeko idazkaritzan.

**b) Espedientea aztertzeko eta, hala badagokio, erreklamazioak aurkezteko epea:** 30 lanegun, iragarki hau Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hurrengo lanegunetik kontaktzen hasita, bulego orduetan.

**c) Erreklamazioa aurkezteko aukera dutenak:** Uztailaren 5eko 11/1989 Foru Arauaren 17. artikuluko zerrendan agertzen direnak.

**d) Aurkezteko bulegoa:** Udaletxeko sarrera erregistro nagusian. Erreklamazioak aurkez daitezke, baita ere, Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen azaroaren 26ko 30/1992 Legearen 38.4 artikulua zehazten dituen tokietan.

**e) Zein organoren aurrean:** Udalbatzarra.

Jendaurreko epea amaitu eta erreklamazio edo oharrik aurkezten ez bada, hartutako erabakiak eta aldatutako ordenantzen eranskinak behin betikoak bilakatuko dira, beste erabakirik gabe.





### 3.- ONARTZEA, EGOKI BADA, AUTO-TAXI ZERBITZUAREN TARIFA URBANOAK ALDATZEA 2013RAKO, UROLA-KOSTA ESQUALDEAN.

Udalbatzarrak gaiaren berri jakiten du; ASOCIACION GIPUZKOANA DEL TAXI elkarteak eskaria aurkeztu du, 2013an Urola Kosta eskualdeko auto-taxi zerbitzuaren tarifak aldatzea proposatuz; tarifa berrien proposamenarekin batera, ustiaketa kostuen azterketa ere aurkeztu du.

Udalbatzarra jakinaren ganean geratzen da eta, Hirigintza, Ingurumena, Ogasuna eta Pertsonaleko batzorde informatzaileak 2012ko urriaren 18an emandako diktamena ikusita, gaia eztabaidatu ondoren, **HONAKO HAU ERABAKITZEN DU, AHO BATEZ [guztira HAMABI BAIEZKO BOTO; gehiengo absolutua, beraz]:**

**ONARTZEA** 2013an Urola Kosta eskualdeko auto-taxi zerbitzuaren tarifak aldatzeko proposamena, ASOCIACION GIPUZKOANA DEL TAXI elkarteak aurkeztu duena. Aldaketa 2013ko urtarrilaren 1etik aurrera sartuko da indarrean.

Beraz, 2013ko tarifak honako hauek izango dira:

<b>TARIFA URBANOAK 2013</b>			
<b>PROPOSAMENA</b>	<b>GUTXIENEO TARIFA</b>	<b>KILOMETRO BAKOITZEKO</b>	<b>ITXOITEN PASATAKO ORDUA</b>
<b>1. TARIFA*</b>	5,1161 euro	1,0918 euro	20,8504 euro
<b>2. TARIFA**</b>	6,0900 euro	1,7413 euro	34,0342 euro

Gutxieneko tarifaren barruan sartuta daude ibilbideko 1,5 kilometro edo itxoiten pasatako 5 minutu.

(\*) Tarifa hau lanegunetan aplikatuko da, 07:00etatik 22:00etara.

(\*\*) Tarifa hau egunero aplikatuko da, 22:00etatik 07:00etara. 2. tarifa aplikatuko da, baita ere, igandetan, larunbatetan eta jai egunetan, eta abenduaren 24an eta 31n, 07:00etatik 22:00etara.

### 4.- LEHEN ONARPENA EMATEA, EGOKI BADA, 7/2012 KREDITUA ALDATZEKO ESPEDIENTEARI. ESPEDIENTEA KREDITUA TRANSFERITZEKO MODALITATEAN EGINA DAGO.



Udalbatzarrak gaiaren berri jakiten du. 7/2012 espedientea kreditua transferitzeko modalitatean egina dago eta 21.086 euroko zenbatekoa du.

Udalbatzarra jakinaren ganean geratzen da eta, Hirigintza, Ingurumena, Ogasuna eta Pertsonaleko batzorde informatzaileak 2012ko urriaren 26an emandako diktamena ikusita, gaia eztabaidatu ondoren, **HONAKO HAU ERABAKITZEN DU, AHO BATEZ** [guztira **HAMABI BAIEZKO BOTO**; gehiengo absolutua, beraz]:

**1.- LEHEN ONARPENA EMATEA** Udalaren 2012ko aurrekontuari dagokion 7/2012 kreditua aldatzeko espedienteari. Espedientea kreditua transferitzeko modalitatean egina dago eta 21.086 euroko kopurua du.

**2.-** Indarrean dagoen araudia betez, **JENDAURREAN JARTZEA** kreditua aldatzeko espediente hori, ondoko arauen arabera:

**a) Ikusgai dagoen tokia:** Idazkaritza-kontu-hartzailletza

**b) Espedientea aztertzeko eta, hala badagokio, erreklamazioak aurkezteko epea:** Hamabost lanegun, iragarki hau Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hurrengo lanegunetik kontatzen hasita.

**c) Erreklamazioak aurkezteko aukera dutenak:** Gipuzkoako Lurralde Historikoko Toki Entitateen Aurrekontuei buruzko abenduaren 19ko 21/2003 Foru Arauaren 17.1 artikulua zerrendatzen dituen interesatuak.

**d) Inpugnatzeko arrazoiak:** Goian aipatutako Foru Arauaren 17.2 artikuluan adierazitakoak.

**e) Aurkezteko bulegoa:** Udalaren sarrera erregistro nagusian, bulego orduetan (astelehenetik ostiralera 8:30etik 14:30era).

**f) Erreklamazioak jasotzen dituen organoa:** Udalbatzarra.

Jendeari erakusteko epea igarotzen bada inolako erreklamazio edo oharrik jaso gabe, kreditu aldaketarako espedientea onartutzat joko da behin betiko, beste erabakirik hartu behar izan gabe.

**5.- ONARTZEA, EGOKI BADA, EAJ UDAL TALDE POLITIKOAK AURKEZTUTAKO ADIERAZPEN INSTITUZIONALA, 2012KO AZAROAREN 25EAN "EMAKUMEENGANAKO INDARKERIAREN KONTRAKO NAZIOARTEKO EGUNA" DELA-ETA.**



Udalbatzarrak gaiaren berri jakiten du. Adierazpen instituzionalak honela dio, hitzez hitz:

*Azaroaren 25a dela-eta, hau da, Nazio Batuen Batzar Nagusiak "Emakumeenganako indarkeria desagerrarazteko nazioarteko eguna" aitortutako eguna dela-eta, Orioko Udalak indarkeria matxistaren aurkako gaitzespena agertu du. Emakumeenganako indarkeriaren kontrako edozein adierazpen gaitzesten dugu, dimentsio orotan (fisikoa, psikologikoa, sexuala, sinbolikoa...), bai eta sexismo mota oro ere, arinenak eta normalizatuena barne, esaterako: sexuaren araberrako rol estereotipatuak: neska eta emakumeen ikusezintasuna bizitzako hainbat arlotan, bigarren mailara zokoratuz; sexu eta ugalketa eskubideen ezeztapena; edota pertsonetikiko diskriminazioa euren sexu-aukeraren edo genero identitatearen ondorioz.*

*Belaunaldi gazteagoen artean emakume nahiz gizonen arteko desberdintasunak eta emakumeenganako indarkeria gailenduta daudelako mitoa baino harago, errealitateak erakusten digu gazteen artean dagoen indarkeria matxista, baita adin txikikoen artekoa ere, benetan kezkarria dela.*

*Horrenbestez, ezinbestekoa da ulertzea ezin daitekeela emakumeenganako indarkeriaren kontra borroka egin, gizonezkoen eta emakumezkoen ereduak sakon eraldatu gabe, ez eta gizonezkoen eta emakumezkoen arteko harreman afektibo eta sexualak eraikitze modua aldatu gabe ere. Horregatik, tokiko gobernuok konpromiso aktiboa izan behar dugu udalerriko gazteekin lan egin eta indarkeria matxista prebenitzeko, ahalegina eginez eta beharrezkoak diren baliabideak eskainiz. Hori horrela, errespetuan, askatasunean, autonomian eta berdintasunean oinarritutako harremanak eraikitzen lagunduko diegu gazteei.*

*Prebentzioko prozesu honek erreferentziazko eredu berriak sortzea ahalbidetzen du, hain zuzen ere, mutilek eta gizonek pribilegiozko jarrerarik eduki ez dezaten nesken eta emakumeen aldean; izan ere, indarkeria matxistaren jatorria emakumeen menpekotasuna eta diskriminazioa betikitzen duen botere-harremanean dago. Beldur Barik programan Euskadiko udalek hartzen dute parte, eta helburua da sexismotik aldentzen diren neska-mutikoen jarrera positibo eta egunerokoak antzeman eta ikusaraztea; izan ere, jarrera horiek rol tradizionalekin hautsi eta gizarte berdintsuagoa eraikitzea dute xede.*

*Erakundeetatik eta erakunde hurbilenetik, udaletik, indarkeria matxistaren kontrako ardura soziala eta politikoa gure gain hartu behar dugu eta, horretarako, norberaren aurreiritziak, rola eta eguneroko jarrerak berrikusi beharko ditugu. Norberak erantzukizun horiek bere gain hartuz gero, aldaketarako konpromisoa lortuko da.*



## *Oriko Udala*

— *Beldur Barik programaren edukiekin bat dator, gazteak indarkeria matxistaren gainean sentsibilizatu eta hura prebenitzeko moduak lantzeko tresna gisa.*

— *Herritarrei gonbit egiten die konpromiso pertsonalak eta kolektiboak hartzeko, emakumeen eta gizonezkoen arteko berdintasunaren alde, baita edozein indarkeria edo diskriminazio sexista gaitzesteko ere.*

— *Gonbit egiten die herritar guztiei eta, bereziki, neska-mutilei, azaroaren 25ean Emakumeenganako Indarkeriaren Kontrako Nazioarteko Eguna dela-eta izango diren ekitaldietan era aktiboan parte hartzera.*

Udalbatzarra jakinaren gainean geratzen da eta, gaia eztabaidatu ondoren, **HONAKO HAU ERABAKITZEN DU, AHO BATEZ** [guztira **HAMABI BAIEZKO BOTO**; gehiengo absolutua, beraz]:

**ONARTZEA** EAJ udal talde politikoak 2012ko azaroaren 25ean “Emakumeenganako Indarkeriaren Kontrako Nazioarteko Eguna” dela-eta aurkeztutako Adierazpen Instituzionala, goian jasota dagoen bezalaxe.

## **6.- ORIOKO UDALAK BAT EGITEA, EGOKI BADA, “GRUPO DE ACCIÓN COSTERA” IZENENKO ELKARTEAREKIN.**

Udalbatzarrak gaiaren berri jakiten du. Udaleko Nekazaritza, Arrantza, Industria eta Turismoa batzorde informatzaileak 2012ko urriaren 29an eman du gaiari buruzko diktamena.

Udalbatzarra jakinaren gainean geratzen da eta Nekazaritza, Arrantza, Industria eta Turismoko batzorde informatzaileak 2012ko urriaren 29an emandako diktamena ikusita, gaia eztabaidatu ondoren, **HONAKO HAU ERABAKITZEN DU, AHO BATEZ** [guztira **HAMABI BAIEZKO BOTO**; gehiengo absolutua, beraz]:

**ONARTZEA** Oriko Udalak bat egitea “GRUPO DE ACCIÓN COSTERA” izeneko elkartearekin.

## **7.- ESKARIAK ETA GALDERAK.**

Ez zen eskari eta galdera gehiagorik izan.



**ORIOKUDALA**

Udalbatzarraren ezohiko bilkura  
2012/10/30

Horrenbestez, udalbatzarrera bertaratutako pertsonetako inork hitza hartu ez duenez, alkate-presidenteak bilkurari amaiera ematen dio eta, erabakitakoa jasota gera dadin, nik, idazkaria naizenez, akta hau egiten dut alkatearen ontzat emanarekin.

**ALKATE-PRESIDENTEA,**

**IDAZKARIA,**